

# AUZOEN URTEKO BILERA

## 2020KO JARDUERAK

**COVID-19ren osasun-krisiak eragin handia izan du aurtengo jardueretan, eta egoera berezi honek eragotzi egin du Agoizko Udalak 2019ko auzo-bileretan hitzartutako ekintza guztiak normaltasun osoz garatu ahal izatea. Hala eta guztiz ere, udal brigadak eta udal taldeak lan eta jarduera ugari egin ditugu, honako hauek:**

### **ARGITERIA ALDATZEA**

Agoizko argiteria publikoa berritzeko lanak amaitu dira. Hasiarako proiektuarekin aldaratuta, zenbait aldaketa egin da, eta aurreikusi gabeko argi puntu berriak jarri dira:

- Futbol zelaira igotzeko bidean
- Guirior markesaren kalean
- Elizaren ondoko aparkalekuan, izkinan
- Iturzarreko parkera jaisteko eskaileretan
- Iturrama kalean
- Francisco Indurain kalean, eskaileretan
- Irigai Auzoa, 25. zenbakian, izkinan
- José Amichis plazan
- Santa Ana kalean, izkinan

### **TRAFIKOA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

Abuztuaren 27an ordenantza behin betiko onartu zen, gure hirigune historikoa leku atseginagoa eta trafikorik gabea izan zedin. Azaroan hasi zen indarraldian, eta araudiak jasotzen dituen neurriak aplikatu ziren. Gaur egun, alde zaharrean bizi direnentzako txartelak prestatzeko ari gara lanean.

### **OSASUN-ZENTROA**

Osasun zentroaren ondoko eraikin berriko lanak amaitu dira. Bi eraikuntzak, galeria baten bidez lotuta daude. Eraikin berrian pediatriako bi kontsulta, larrialdietarako gela bat eta gaueko guardietako langileentzako gelak daude.

### **HAUR ESKOLARAKO SARBIDEAK**

Zebrabide bat margotu da ate nagusian. Eskolaren atzealdeko itxituran dagoen ate bat erabili ahal izateko, hura eta eraikina lotu ahal izateko espaloi moduko bide bat egokitu da.

Sarrera nagusian autoak eta pertsonak pilotzea saihestu nahi izan da, eta, bidenabar, sarrera eta irteeretan ezarritako osasun protokoloak bete.

## **SAN MIGEL IKASTETXEKO OBRAK**

- Jangelako eta idazkaritzako leihoak eta ate nagusia aldatu dira. Aurrekontua: 42.993,50 €.
- Barneko hodiak aldatu dira, berotze sistemako galdara kanalizatzeko. Aurrekontua 25.228,50 eurokoa izan zen.
- Solairu guztietan dauden komunak berritu dira (alikatatu, sanitarioak aldatu, ateak aldatu eta margotu dira). Aurrekontua: 75.676,94 €.

## **HIRI-ALTZARIEN ETA UDAL-LOKALEN SANEAMENDUA**

Hainbat udal lokal saneatu eta egokitu dira: ludoteka, udaletxeko beheko solairuan dagoen lokala (lehen Sarean-ena izandakoa), Kultur Etxea eta Toki-Eder pilotalekuaren kanpoko atariko pareta. Gainera, hainbat hiri elementu margotu dira: hesiak (frontoiko parkea, iturriko biribilgunea, masakoe-tara jaisteko eskailerak, etab.), bankuak, haur parkeak, seinaleztapenen errepassoa (zebrabideak, aparkalekuak, etab.).

## **DBH INSTITUTUA**

Institutu berria eraikitzeko proiektua idazten ari dira. 2020an bertan amaituta egotea aurreikusita dago. Hurrengo urtean, eraikitzeko obrak lizitatu eta altxatzen hasiko dira.

## **EGINDAKO AUZO PROPOSAMENAK**

- Zenbait baldosa aldatu dira San Migel auzora bideko espaloian, Rural Kutxaren paretik.
- Zubi "berdean" hainbat proba egiten ari dira produktu desberdinekin, gainazala bustita dagoenean irristagarria izan ez dadin.
- Txantreatako izkinan, zebrabidearen parean, espaloia jaisteko egindako eskaera ezin izan da bete. Ezin izan da egin espaloia oso estua delako.
- Hainbat kaletako eta lekutako asfaltoan zeuden zuloak konpondu dira. Gainera, hondoratuta zeuden hainbat estolda konpondu dira ere.
- Argi eskasiaren arazoa konpondu da hainbat lekutan, argi berriak jarriz (Santa Ana kalearen izkinan, Guirior markesa kalean eta Iturrama kalean).
- Kaleetan katu gehiegi egotegatik sortutako arazoa dela eta, jaten ematen dienekin hitz egin da, debeku horretaz ohartarazteko hainbat kartel jarri dira, eta katu horietako hainbat kimikoki zikiratu ditu albaitaritza enpresa batek. 3.000 euroko kostua izan du jarduketak.

**Badakigu konpondu eta erantzun beharreko zalantza, iradokizun eta jarduera asko daudela oraindik. Horretan ari gara. Baina zure laguntza eta konpromisoa ere behar ditugu, guztion artean Agoitz hobea egiteko eta gero eta jasangarriagoa izan dadin.**

Agoitz, 2020ko azaroa

